



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko urtarrilaren 4ko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko urtarrilaren lauan, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne.
Bilkurako idazkari izendatua izan da : PERUSANSENA Elodie.

Deialdiaren eguna : 2023ko abenduaren 22a

Afitxatze eguna : 2023ko abenduaren 22a

5. ERABAKIA: EUSKAL ELKARGOAK PROPOSATZEN DUEN BEHATOKI FISKAL PARTEKATU AMANKOMUNEN ZERBITZUAN BAZKIDETZEA

(9.1nomenklatura)

Auzapezak herri biltzarkideei oroitarazi die, herriak Euskal Hirigune Elkargoak eskaintzen duen fiskalitatean laguntzeko zerbitzua baliatzen duela. Zerbitzuak zerga oinarriak segitu eta fidagarri egiteko, erabakien hartzen laguntzeko eta legezko eta arauzko bilakaerek herriaren baliabideetan izan ditzakete eraginen behaketa funtzioa eskaintzen du, behaketa fiskal partekatua bidez.

Behatoki fiskal partekatu horri dimentsio integratuagoa emateko, eta jakinez Euskal Elkargoan mutualizazio eskema batentzako urraspidea abiatua dela, «Behatoki fiskal partekatua» zerbitzu amankomuna sortu zen elkargoko Batzorde Nagusiaren erabakiz 2023ko abenduaren 9an.

Auzapezak zehaztu du zerbitzu hori baliatu nahi duten herriek horren aldeko erabakia hartu behar dutela eta dagokion hitzarmena izenpetu, erantsia denaren arabera. Euskal Hirigune Elkargoak du zerbitzu horren gastua bere gain hartuko.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- **ERABAKI DU**, Euskal Elkargoak proposatzen duen «Behatoki Fiskal Partekatua» zerbitzuan bazkidetzea,
- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari, «Behatoki Fiskal Partekatua» zerbitzu amankomunean bazkidetzeko hitzarmena izenpetzeko.

Kide kopurua : 15
Hor zirenen kopurua : 13
Balizko boz kopurua : 13
ALDE : 13
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko urtarrilaren 4an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/01/08an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/01/08an.